

KULTURA SAN ANDRES JAIXAK UZTAILAREN 10, 11 ETA 12AN  
SUTONDOAREN EPELEAN RK ZULO JAIALDIA ETA ANTZERKIA

# @k' piipilean

PLAZA BARRIYA Soraluzeko Hamabostekaria 93. alea 2004ko ekainaren 25a

1830



# Ukraniatik Soraluzera



**Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean**

# GOL

**GOL industriak S.A.**  
Sagar Erreka, 19 45 PK  
Telefona: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
**20590 SORALUZE**

**"Eman izena Etxebiden!"**



**Saciako babes  
ofizialeko etxebizitzetan  
izena emateko  
Euskadiko Kutxan  
duzu aukera!**

  
etxebide

 **EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**  
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAISTAKO SAIA  
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y ASUNTOS SOCIALES

Zurekin elkarlanean

  
**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**

Santa Ana ,18  
Telefona: 943 751 238  
Faxa: 943 753 103  
20590 Soraluze/ Gipuzkoa



## AHTrik ez! Ez zaitzala trenak harrapatu!!

ARIANNE UNAMUNO

**A**zkenaldi honetan, gizurra eta engainua merke dabiz politikan merkatu liberalista honetan. Saldu nahi daberen produktua ABIADURA HAUNDIKO TRENA da oinguan, superproiektuen sailian. Dirutza galanta sartu nahi dabe boltzikuan gure kontura, euskaldun danon kontura.

Baina gehixen ardura dabena ez da betiko izarra: dirua. Beste kontu garrantzitsuaguak dare trukaketa libre barik aidian eruango dittuenak: natura bera jota txikituko dabe (ze ete da ba azken baten Euskal Herrixa, gure modoko bizilagunak aparte laga ezker?) eta komeni jakuen gizarzte moldia ezarriko dabe.

Kmtako tunelak, zubi gaineko bidiak (zenbat egongo ete dira Plaentxiako txintxilkarixo horren moduan?), lurrak botatzeko hektareatako eskonbrerak... eta zuluak alde batetik eta zuluak bestetik. Eta zuluak ez daka ezer barruan, zuluak hutsa da. Iluna egotera, emoten dau zoeze dakala barruan, kultura, ingurugirua eta modan daren beste hainbeste hitz dinue, baina espejismo hutsa da. Ez dago ezer zulo horren barruan. Eta ezer egotekotan, ez ingurugirua eta kultura behintzat, iruzurra eta haundi-nahixa ez bada.

Eta zein ez da gustora ibiltzen gure herriko kalietan patxaraz pasian, onduan pasautakuak agurtuaz, ji ji eta jaja lagunekin, kotxe danak zain dakazen bittartian? Ta orduan zetako ineztua baino azkarrago ibili? Ba, Plaentxia moduko herrixak trenan azkenengo bagoian juango dira beti-

ko, aguro-aguro gainera. Bilbo, Donostia eta Gasteizko laberintuetara bialdu nahi gaittue, bertan galtzera kondenatu. Gure erruak moztu eta europartasunian itto gaittezen. Paraisua balitz moduan... zeini gustatzen jako prisaka ibiltzia? Zeini gustatzen jako kalera urten eta kotxiak eta kotxiak eta jentia eta jentia sentitzia inguruan, ke artian?

Gure herrixak boikota egiten badotse kotxieri, zetako egingo dau aberatsak alde batetik bestera eruango dittuan trenan alde? Oin trenan merkia ez bada, ez dozue ba pentsatuko AHTa merkia izango danik, ezta? Eta ez zintuten sinistuko merkantziak garraiatuko dittuanik, ezta? Ez da urte askuan posible izango-eta.

Badao irratittan, benetako irratit libretan, herritarren hitza zabaltzen daberen irratittan (EYTBk ez dau eskaerian erantzunik be emon. Zegaittik ete da?), AHTiari buruz iragarki edo kuña bat. Ez dau baietz esateko eskatzen, ez dau gizurrik esaten, ez dau inor engainatu nahi; ez da Eusko Jaurlaritzak egindako iragarki gizartero eta faltsu hori. Ez egizue ahaztu:

“Ingurugiroa, ez da Yrekin idazten; ekonomia, ez da Yrekin idazten; iruzurra? iruzurra bai, idatz daiteke; trenak?

Trenak ez dauka i-rik!  
Euskal Herria ez da Yrekin idazten,  
Euskal Herriak ez du Yrik behar.  
Ez zaitzala trenak harrapatu!  
Ez ez ez, ez ez ez, ez ez ez,  
Ez ez ez, AHTrik ez!!”

## Telegrapak

“Priviet!”. Stop. zer moduz?. Stop. gu oso zorionsu gara. Stop. begira zenbat zorion agur. Stop. argi dago aldizkariaren eta soraluzetarren arteko atxikimendua gora doiala. Stop. jakin egizue donaziñuak be onartzen dittugula eta gurekin kolaboratzia legezkuak dala gainera. Stop. je, je!. Stop. Karakateko gurutzia beste urte egiten dittugunian... Stop. orduan aldizkariko hiru lau orri zorion agurrez beteta etaroko dittugu!. Stop. baina denborak zer ekarruko doskun ez dakigu!. Stop. heriotza seguru!. Stop. noiz ez dakigu baina!. Stop. eta eskerrak!. Stop. hori bai, maitatua izanda hiltziak gauza edarra izan bihar dau... Stop. eta bitartian badaukagu zeregina ugari mundu honetan. Stop. batzuk Ukrainarrei opor on batzuk pasarazten dotsez... Stop. bi hilabeteko oporraldixa dana dagan tokixan. Stop. beste asko organu emaile egin dira aurten. Stop. 90 baino gehixao. Stop. bada zoezer!. Stop. eta beste batzuk jaixak antolatzen dihardue buru belarri. Stop. jentia ongizate eta gozamenerako egiten dira horrek danok eta gehixao. Stop. eta guk?. Stop. zer egiten dogu zuk eta nik?. Stop. ba ziur aski zerbait bai. Stop. baina seguru egin geinke zoezer gehixao. Stop. eta merezi dau eh!. Stop. merezi dau horretan saiatziak!. Stop. ze bizitza heriotzarako bide bat da. Stop. eta maitatuak hiltzia nahi badogu... Stop. “poka!”



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.  
Telefonoa 943 75 13 04  
comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/UE  
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo  
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunikizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZeko  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA



## Erreportaia

Joan zen astelehenetik Ukrainako zortzi neska mutiko daude herrian. Ez da lehenengo aldia Txernobil elkartearen bitartez Sorluzera datozena, batzuekako seigarren urtea ere bada dagoeneko.

## Zorion agurrak



**Irantzu Sanz**  
Uztailaren 19an  
Zorionak amatxo!!  
Oso ondo pasa.  
Muxu haundi bat.  
Unai, Jose eta  
kuadrilakuen  
partetik.




**Mikel Gallastegi**  
Ekainaren 26an  
Zorionak txikito!!  
Oso ondo pasatu  
deizuela! Eta jarrait-  
tu zintzo zintzo  
eeeh.  
Etxekuen partez.



**Patxi Arrillaga eta Carlos Vila**  
Uztailaren 23an eta uztailaren 29an  
Zorionak!  
Egun ona pasa! jarraitu horrela  
parrandeiros!  
Baina txintxo ibili...  
Etxekuen partez.



**Aitor Prieto**  
29 urte  
Ekainaren 24an  
Zorionak guapo!!  
Muxu haundi bat  
Alaznaren partez.



**Leo Zarobe**  
Ekainaren 29an  
Zorionak txapelduna!  
Muxu haundi bat eta  
egun ona pasa!  
Etxekuen partez.



**Unai Castro**  
Ekainaren 25an  
Ekainaren 11an  
Zorionak!  
Jarraitu horrela.  
Familian partez.



**Irati Larreategi**  
Uztailaren 2an  
Zorionak neskatila!  
Muxu haundi bat eta  
egun ona pasa zure  
egunian!  
Etxekuen partez.



**Ezozki Arrillaga**  
Uztailaren 17an  
Zorionak amatxo!  
Muxu haundi bat eta  
segi alai alai!  
Imanol, Ramon eta  
kuadrilakuen partez.



**Markel Gil**  
Ekainaren 22an  
Zorionak mutiko!  
Segi horrela  
"campeon!"  
Naroa, aita eta  
ama.



**Oiher Aranzeta**  
Uztailaren 9an  
Zorionak mutikote!  
Muxu haundi bat eta  
jarraitu sano sano  
izaten!  
Etxekuen partez.



**Garazi Jauntsarats**  
Maiatzaren 8an  
**Agus Jauntsarats**  
Ekainaren 7an  
**Garazi Jauntsarats**  
Ekainaren 7an  
Hemen nire hirukote.  
Zorionak hirukote! !  
Amatxoren partez.

## Ajenda

**ATXOLIN GURASO ELKARTEAREN BATZARRA**  
ekainaren 28an, 20:30etan  
Kiroldegiko Erakusketa Gelan

### GAZTETXEKO FESTA KULTUR-ANITZA

#### BIDEO EMANALDIK

**Ekainaren 29an, martitzena**  
Palestina K. Internazionalistak 2003  
Ramadamaren inguruko bideoa

**Ekainaren 30ean eguaztena**  
20 Dias de noviembre, despues de una revuelta

**UDAKO ZINEA**  
Uztailaren 9an, barikua  
22:30etan Plaza Zaharrian  
"Ogia eta arrozak"

## hildakoak

Gregorio Portu  
Pedro Elizburu  
Roman Axpe



### JARDUERAK

#### Gay eta lesbianen nazioarteko duintasun eguna

Ekainak 28, astelehena, gay eta lesbianen nazioarteko duintasun eguna ospatuko da. Elkarte ezberdinek hainbat ekitaldi, tailer, zein manifestazio deitu dituzte Bilbo, Donostia eta Gasteizko kaleetan. Informazio gehiago: [www.gehitu.com](http://www.gehitu.com), [www.ehgam.org](http://www.ehgam.org), [www.hegoak.com](http://www.hegoak.com).

#### EHZ festibala

Topagunea, Eskara Elkartearen Federazioak antolatuta, Ozaze-Mendikotan (Xiberua) Euskal Herria Zuzenean festibala ospatuko da uztailaren 2, 3 eta 4an. Informazio guztia Topagunearen webgune berrian: [www.topagunea.org](http://www.topagunea.org)

### LEHIAKETAK

#### Artisautza Deban

Debako Artisautza Irakaskuntzen zentroak hainbat ikastaro antolatu ditu aurtengo uztailerako. Grabatu kalkografi-koa, zurezko eskulturak, zeramika, marmolezko eskultura etab. Epea: ikastarora hasi baino astebete lehenago edo plaza agortu arte. 943 191804 [debarate@euskalnet.net](mailto:debarate@euskalnet.net)

### LANA

#### Musika irakasleak Urnietan

Urnietako Udalak piano, biolin, tronpeteta, saxofoi eta trikitixa espezialitateetako musika irakasleen kontratazioa burutu nahi du. Epea: ekainak 30

#### Lanerako pertsonak behar dira

Garbiketa, sukaldaritza eta lorezaintzan lan egiteko. Bidali kurrikuluma 166 p.k.ra. Ermua.

### BESTELAKOAK

#### Pisu bat salgai SORALUZEN

Garaje eta guzti. Harremanetarako, deitu 656780748 telefonora.

**IKERLAKU**  
PODOLOGIA ZENTROA  
OINETAKO GAIXOTASUNAK  
AZTERKETA BIOMEKANIKOA  
KIROL PODOLOGIA  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK

Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

**ETXE HUN, S.A.L.**

Mendiola Industrialdea 14-5  
Tfnoa 943 75 18 91  
Faxa 943 75 24 58  
E - maila: [etxehun@teletel.net](mailto:etxehun@teletel.net)  
[etxehun@euskaltel.net](mailto:etxehun@euskaltel.net)

20590 SORALUZE  
Gipuzkoa

## Zer irizten dotsazu?

Ibarretxe lehendakariak jakinarazi berri du AHTa (Abiadura Handiko Trena) egiteko lanak aurten hasiko direla. Jaurlaritzak AHTa Euskal Autonomia Elkartearen garapenerako ezinbesteko azpiegitura dioen bitartean beste hainbat eta hainbat gizarte eragilek, ingurumean eta gure gizarte antolaketan neurtuezineko eragin kaltegarria izango duen mehatxua dela diote.

## Ze eritzi daukazu AHTren inguruan?



**Gloribel Oregi**  
aurrejubilatua  
61 urte

Nik pentsatzen dot Euskal Herrirako aurrerapen bat dala eta nere ustetan beharrezkoa. Espero dot egittia eta guri zergak ez igotzia egittigaittik.



**Ramon Larrañaga**  
errektifikadorea  
43 urte

Nik pentsatzen dot hamen Soraluzen ez daguala biharrik eta gero, merkantzien dako be, ez dot uste asko erabiliko danik. Igual kanpotarrendako ona izango da baina guretako ez dau askotarako balio.



**Xabier Retolaza**  
biltegiako langilea  
34 urte

Hamen edo herri txikitzen da biharrezkoa, igual kapitaletan bai, baina hemen... Soraluzetarrendako ez dot ikusten eta kanpotarrei eurei galdetu bihar.



**Maria Eugenia Arrazola**  
etxeandria  
61 urte

Espero dot egittia, hamen oso gaizki komunikatuta gare eta nere ustez hau aukera paregabe bat izango litzake ondo komunikatuta egoteko. Nere ustetan arrakasta eukiko leuke eta jentia erabiliko leuke.



**Margarita Uriarte**  
etxeandria  
69 urte

Ni alde nago eta biharrezkoa ikusten dut, inkomunikatuta garelako beti empresa pribatuaren menpe traslatazko eta neretzat hau egin behar da eta onurak ekarriko ditu.



**Nestor Iriondo**  
jubilatua  
74 urte

Ni ados nago, badittut lagunak kontra darenak baina nik ikusi dotenez eta beste lekutan euki dittuan emaitzegaitik ados nago. Ni ibilita nago eta alde haundixa dago, ados nago.



**HNOS. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



**EDURTZA kafetegia**

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko menua eta pintxoak**

**Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze**

# Munetako Haitzeko Gurutzeak 50 urte beteko ditu

Aurtengo Santiago egunean beteko dira 50 urte Munetako Haitzetako gurutzea jarri zutela. Besteak beste, Ventura Mendizabal, Agustin Gabilondo, Florentino Maiztegi, Pedro Atxa eta Mariano (Zeletakoa) ibili ziren Don Migel Goikoetxea abadearen aginduz jarri zuten gurutzea egiten. Itxura batean "Ano Mariano" delakoa zelako hartu zuen abadeak gurutzea eraikitzeo erabakia.

Egurrezko armazoiarekin egin zuten gurutzea eta 1000 litro ur eta ehundaka kilo are eraman behar izan zituzten Itsasoi eta beste baserri batzuetako idiekin Munetako Haitzetara. Gogoan du Venturak zela gau baten urez betetako kupelak hustu etalangerako herramintak lapurtu zizkietan, hurrengo domekan Meza nagusian aitatu zuen gainera abadeak. Santiago Egunez egin zen inaugurazio ospakizuna, izugarriko beroa egin omen zuen egun hartan baina jende mordoxka batu omen zen abadeak bertan eskeini zuen mezatarara.



Venturak ondo gogoratzen ditu gurutzea egiten jardun zuteneko kontuak. Berak egingako gurutzearen ondoan ageri da argazkian.

## ESKERTZA

Apirilaren 1ean hil zen Buenos Airesen 64 urte zituela

### JAVIER LOYOLA



Soraluzen jaio zen 1939ko maiatzaren 15ean eta Buenos Airesen (Argentina) hil zen 2004ko apirilaren 1ean. 11 Urterekin joan zen bere familiarekin batera Buenos Airesera 1950ean. Anaia Maristen Eskolan ikasi zuen hemen eta han Politeknikoan jarraitu zituen ikasketak.

Gizon saiatua zen. Gaztaro betean bere ikasketak amaitu orduko hasi zuen bere jardun industrialia: Olio ontziratzean ziharduen enpresa bat sortu zuen; Hosteleritzako negozio bat ere bai eta orain 25 urte baino gehiago akoplatuen enpresa bat sortu zuen (Semi-erremolkeak) kamioi astunendako, zeina Javierren ahaleginaren laguntzaz ehundaka langile izateraino garatu zen.

Elida Luna bonarensearekin ezkondu zen. Oso ongi konpontzen ziren eta horren adierazgarri dira izan zituzten lau seme-alabak: Maria Eugenia, Iñaki, Soledad eta Maria Angeles, zeintzuek harrotasun handiz daramaten Loyola abizena eta euren jatorriarekin harremanak mantendu dituzten.

Jabierren izaeran, zuen laguntasunaren zentzua, gizatasuna eta ezagunei zein ezezagunei laguntzeko zeukan prestutatuta azpimarratuko genituzke, nahikoa zuen Soraluzekoak edo Elgoibarkoak zirela jakitearekin, alai, sana eta lagun leiala. Oroitzapen honen bitartez, bere lagunak, Javierren senide guztiak animoz jantzi eta joatearekin utzi duen hutsune handia betetzen ahalegindu nahi dugu, gu beti ondoan izango gaituzuela jakinaraztearekin batera. **Zure kuadrila.**



Barra kargadore automatikoak  
eta makina bereziak

## ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: [etxehun@teletel.es](mailto:etxehun@teletel.es)

[etxehun@euskaltel.net](http://etxehun@euskaltel.net)

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

# LAUDIN

PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g

138 Postakutxa

tf: 943752150

Faxa: 943752118

## SORALUZE

## GalEusCa (EAJ) garaile Europarako



Goikoak izan dira ekainaren 13ko Europako Legebiltzarrerako egindako hauteskundeetako emaitzak. Erroldan 3.493 soraluzetar zeuden bozkatzeko aukerarekin eta horietatik 1.778k (%50,9) ez ziren bozkatzera joan. 1999ko Baliogabeko botuak 387 izan ziren eta horietatik 380 zenbatu zituzten HZko moduan. Goian jarritako alderdiez gain 37 botuk bestelako alderdiei

eman zieten botua. 1999an egin ziren Europarako hauteskundeak udal hauteskundeekin batera egin ziren eta hartatik orduko hartan abstentzioa %28,4koa izan zen. Orduan EAJ-EAK (K. Nazionalistak + herrien Europa) 1.096 botu lortu zituzten, HZk 736, PPK 388, PSE-EEK 360 eta IUk 28. Aralar artean osatu gabe zegoen. Baliogabeak berriz 22 izan orduko hartan.

## Oñatiko hiltegia mantentzearen alde



Harakin baserriar eta kontsumitzaileek Oñatiko hiltegiaren aurreko prentsaurrekoan.

Joan zen apirilean Oñatiko hiltegi publikoa itxi behar zela jakin zutenetik, Deba bailarako hainbat harakin, baserriar eta kontsumitzailek (tartean Soraluzekoak) hiltegia irekita mantentzeko eskatzeko mobilizazioak hasi dituzte. Oñatiko hiltegia Debagoieneko Mankomunitatearen ardurapean dago eta "Hiltegia Bizirik" plataformak hiltegia zabalik mantentzeko proiektua aurkeztuko

dio datozen egunetan. Horrekin batera sinadura bilketa bat hasi dute Deba bailarako hainbat herritan eta prentsaurreko ezberdinak ere eskeini dituzte. Oñatiko hiltegiak batez ere Debagoienearrei eskeintzen die bere zerbitzua baina Urola eta Debabarrendarrei ere bai. Hiltzen diren animalien %11 eta handik banatzen den okelaren %25<sup>a</sup> Debabarrenari dagokio.

## Mutiko bat harrapatu zuen auto batek

Joan zen astelehenean, Errekalde kalean, auto batek mutiko bat harrapatu zuen. Udalatzaingoak jakinarazi digunez, zauri batzuk jasan arren, eritetxean egun batzuk pasatu eta oneratu da dagoeneko.

## Sahiesbideko lan martxan dira berriz

Joan zen ekainaren 17an egindako Udala Batzarrean onartu zuen Udalak Zeletako zubia eraitsi eta berrri egiteko eraldatutako proiektua. Proiektu honek 103.778 euroko (17 miloi pezeta) gaitzua izango du. Proiektuak EAJ eta PSEEn aldeko 5 botu eta SAH eta PPren abstentzioak jaso zituen. Hilabete baino gehiagoan gelditu egon ostean berriz ere hasita daude sahesbideko lanak.

## Saziako etxebizitzak urrago

Dagoeneko Udalak onartu ditu Saziako eremua urbanizatzen hasteko beharrezkoak ziren Arau Subsidiarioen aldaketak. Orain Jaurlaritzako Etxebizitza sailaren eskuetan dago, lanak lehiaketara ateratu eta eraikuntza lanei hasiera ematea. Ez dago fetxa zehatzik.

## Alkatearen ordezkapena

Alkatetzaren erabakiz, Alberto Sudupe Alkatearen gaitzasun arrazoiak direla medio, Alkatetzari dagozkion egitekoak Oskar Gabilondok beteko ditu hemendik aurrera.

## 90 Organu emaile

Joan zen asteetan organu emaile berriak aurkitzeko egindako kanpainak fruitu onak eman ditu herrian, 90 emaile berri egin dira eta.

Telefona 75 24 09

# ARRANO

## tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"



**ETORRI ETA GOZATU**

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

# etxera



## Jose Antonio S.L.

### igeltzeritza

Gabolatx, 19 - Telefona 943 75 11 14 - 943 75 24 49  
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)



## Spriezdon! / Ongi etorri!

Anatoli, Kostian, Kostian, Ana, Elena, Inna eta Natalia (Dimitri falta zen hondartzara joana zelako).

Joan zen astelehenetik Ukrainako zortzi neska mutiko daude herrian. Ez da lehenengo aldia Txernobil elkartearen bitartez Soraluzera datozena, bazuendako seigarren urtea ere bada dagoeneko. Irpin, Goztome eta Ivankiv herrietako neska mutikoak dira, Txernobildik 70 kilometro inguruko erratioan dauden herrietakoak eta istripuaren ondorio lazgarriak bizitzen dihardutenak. Ez dute gaixotasun larriarik baina euren osasuna ahuldua dago hango gizartearen bizimodu eskaxa dela eta. Eta noski, ezagun edo senitarteko batek baino gehiagok jasan dituzte errediazio maila altuek eragindako ondorioak.

Txernobil Elkarteak 1996an sortutako gobernuz kanpoko elkarte bat da. Ukrainako Udal batzuekin eta gorberrun kanpoko erakunde batzuekin egiten dute lan eta 2004an 148 neska mutiko ekarri dituzte EAEko hainbat herritan sakabanatuta. Datorren urtean 200 neska mutiko ekartzeko helburua dute baina horretarako guraso edo norbanakoen laguntza behar dute.

Norbaitek umeren bat etxean hartu nahi duenean, eurak informazio osoa ematen diote lehenik eta ondoren, elkarriketa bat egiten diote bere egokitasuna aztertzeko. Umea etxean hartu nahi duenak, umearen bi hilabeteko egonaldia eta bidaiaren erdia inguru ordaindu behar izaten du. Probatu dutenen esanetan merezi du ahalegin horrek.

*Norbaitek umeren bat etxean hartu nahi duenean, eurak informazio osoa ematen diote lehenik eta ondoren elkarriketa bat egiten diote.*

### MARGO EKITALDIA

Uztailaren 17an, arratsaldeko 17:00etan Soraluzeko frontoian. Gaia librea izango da. 17 urterarteko gazteek partehartu ahal izango due lehiaketan. Materiala antolatzaileek jarriko dute eskuragarri. Lehiaketak ez du irabazlerik izango eta partehartzaile guztiek jasoko dute sariren bat. Aurkeztutako lanak hurrengo gabonetako postalak egiteko erabiliko dira, elkarterako diru pixka bat atera eta jendea kontzientiarazteko.

Txernobilgo umeek EAEn egingo duten egonaldia barruan Txernobil elkarteak antolatutako ekitaldia izango da.

### **TXERNOBIL ELKARTEA**

Bidarte Udaltzia  
Agirre Lehendakaria  
42. Hiribidea  
48.014  
Telef. 943012113

### UKRAINA



(Zuriz dagoena)

**Biztanleria:** 49.568.000  
**Eremua (km<sup>2</sup>):** 603.700  
**Biztanle-dentsitatea (bizt./km<sup>2</sup>):** 82,1  
**Hiriburua:** Kiev  
**Dirua:** hrivna (6 hrivna = euro 1)

**Hizkuntzak:** ukrainera (ofiziala; errusiera).

**Mugak:** I-an Errusia eta Bielorrusia; H-an Itsaso Beltza, Moldavia eta Errumania; E-an Errusia; M-an Polonia, Eslovakia eta Hungaria. (1991n independentzia aldarrikatu zuen Errusiarengandik)

### **Zentral nuklearreko istripua:**

1986ko apirilean gertatu zen istripua. 30 Hildako baino gehiago izan ziren lehen egunetan eta 1.800 hurrengo 10 urteetan. Erradioaktibitateak 5 miloi lagun inguru kalte zituen Ukrainan.



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE

**IÑAKI IÑARRA**

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze





**ITZIAR GANTXEGI - Ukrainan egon berria**

## “Orain berrogei urte hemen ginan moduan bizi dira han”

*Itziar Gantxegi eta bere senarra, Agustín Moro joan zen abenduan izan ziren Ukrainan. Joan den bost urtean etxean hartzen duten Elenaren herrian eta etxean izan ziren, Gozto-men. Ume bat etxean izatearen eta Ukrainaren egindako bidaiaren inguruan berba egin dugu Itziarrekin*

### Zelako esperientzia da ume bat etxian eukitzia?

Guretako oso politta izan da ez daukagulako umerik eta esperientzia berri bat da. Lehehenengo urtian ez da oso ondo pasatzen, jatorduak, lo egiteko orduak eta bizimodua orokorrian oso ezberdina dalako baina gero oso ondo. Han normalian egunian jatordu bat egitten dabe. Jana badago baina ohitura ezberdinak dauke.

### Ze ezberdintasun dago hemengo eta hango umien artian?

Hango umiak ixilaguak dira eta izakera gogorrekuak. Hango umiak ez dauke ohiturarik hemengo moduan urten eta egun guztian kalia jolasian ibiltzeko. Eskolara juaten dira eta eskolatik etxera neguan behintzat. Han neguan 20 edo 30 gradu egitten ditu zero azpittik. Udan gehitxuago urten dabe baina ez hemen moduan. Bera aluzinatuta gelditu zan hemen gabeko hamaikaterdiak arte urtetzen zebela ikusi zebanian.

### Asko oneraten dira gaztetxuak hemengo egonaldixaren ostian?

Izugarri. Gurian egoten dan neskatiliak lau kilo irabazi zittuan jua zan urtian. Hori bai, hara heldu eta berriz galdu zittuan.

### Zelakoa izan zan Ukrainara egin

### znduten bidaiak?

Gu neguan jua ginan, neskatilaren etxera. Arratsaldeko 16:30 etarako etxian genden. Urten orduko izozten dira hankak eta egun baten neskatilian amamak vodkakin berotu zostazen hankak. Oin berrogei urte hemen bizi zan moduan bizi da han jentia. Jente gehixena oso etxebizitza txikixetan bizi da, 40 m2 inguru.

### Txernobilgo istripu nuklearrak ze eragin izan dau?

Lehen Ukraina oso herri aberatsa zan baina Txernobilgua gertatu zanetik inork ez dotse produkturik erosten. Onetik txarrera jua dira. Osasun aldetik, izugarria izan da. Lehendik gaixuak zereneri gaixotasuna larritu zotsen. Gure neskatilian amak kantzerre zeukan lehendik eta istripua gertatu zanian segituan hil zan. Hori Txernobiletik 70 kilometrora dagan herri baten. Lurrak be kutxatuta dare baina zela jan egin bihar daben Txernobil inguruko lurretara bueltatzen ari da jentia. Nik baneukan han egon ginanian Txernobil ingurura juateko gogua baina familixakuak ez zoskuen laga. Eza gutu genduan gizon bat leherketiak 4 kilometrora harrapatu zebana, bere lagunen artetik berak bakarrik urten zeban bizirik.

### Zelakuk dira Ukrainarrak?

Oso gauza gutxi dake, baina beti dabiz kantuan. Ospakizunen bat daganian izugarriko janari pilak prestatzen dittuzte. Vodka asko edaten dabe, askok gehitxo. Etxiari oso garrantzi gutxi emoten dotse, igual ez diralako eurenak izan. Han zela bizi diran ikusita ulertzen dot umien jokamoldia zelakua dan.



**Amaia Unamuno** “Ni kasualitatez sartu nintzan, komentau zosten aukiaria zeguala gaztetxo bat hartzeko eta sartu egin ginan. Aurtengua laugarren urtia da Dimitri gure etxera datorrena. Hasieran oso politta izan zan beretako dana barrixa zalako. Oin oso gustora etortzen da eta gu be oso pozik gare.”



### Kostiantin Diachenco

Hamaika urte daukat. “Nere herrixak Irpen dauka izena. Han ez dago mendirik eta dana laua da, baserrixak ez dare mendixan, herri onduan dare. Oso gustora etortzen naiz Soralezera, hemen lagun asko daukat eta egun guztia pasatzen dot jolasten eta bizikletiak. Hasieran kosta jatan euskeraz ikastia baina oin errez egiten dot.”



**Alazne Etxabe** “Oso esperientzia politta da eta oso gustora gare berakin. Oso ondo konpontzen da eta ia euskalduna da, lehenengotik erakutsi zotsagan euskeraz. Lagun asko egin ditu herrixan eta eurekin ibiltzen da.”

# GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



## Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu  
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara  
Tfnoa 943 75 13 12  
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

# Karidadeko Benta eta Egan aurtengo San Andresetan



Urtero moduan uztailaren 2. asteburuan egingo dira San Andres auzoko jaiak. Hona aurtengo egitaraua:

**UZTAILAK 10, ZAPATUA**  
**23.00etan** Karidadeko Benta  
 - EGANekin erromeria

## UZTAILAK 11, DOMEKA

**11.30etan** Pelota partiduak  
 Bertsolari gazteak (Amaia Agirre eta Jokin Uranga)  
 Urrats Dantza Taldea  
 Unai eta Enaitz trikitilariak

**13.00etan** Meza  
 Bazkaria

**19.00etan** Aimar Irigoien  
 harrijasotzailea  
 Zezenak eta ponyak  
 Bola saria:  
 1go saria 100\_  
 2. saria 60\_  
 3. saria 30\_  
 4. saria ezustekoa  
 (lehenengo auzotarrak saria)

## UZTAILAK 12, ASTELEHENA

**12:00etan** Meza  
 Umeen jolasak  
 Egaña eta Lizaso bertsolariak  
 Dantzaldia Joxe Gardoki  
 soinu-jolearekin.

**15:00etan** Auzokoen Bazkaria  
**18:00etan** Emakumeendako Bola  
 Txapelketa.

## Ipuin lehiaketako saridunak



Ondoren datozen ipuinak dira aurtengo lehiaketan sarituak izan direnak:

**1 TALDEA:** Lehen Hezkuntzako 3 eta 4. kurtsoak. 1.- Martha Romero "Sandy eta mantangorria" 2.- Asier Martinez Alcocer, "Natura zaintzen" 3.- Jon Parra, "Barraskilo lasterketa"

**2. TALDEA:** Lehen Hezkuntzako 5 eta 6. kurtsoak. 1.- Oihane Alberdi

"Nekane zirkoarekin bidaiatzen" 2.- Ignacio Arriola "Barbaratxoek ezpata" 3.- Uxue Gallastegi "Behi berri bat zelaietan"

**3. TALDEA:** D.B.H.ko 1 eta 2. kurtsoak. 1.- Nerea Iñurrieta, "Anorexiaren esklabu" 2.- Marta Ayora, "Nik nahi dudana da..." 3.- Ane Osoro, "Tontakeri batengatik".

## Gipuzkoako txapeldunak briskan



Ziriaka Aranzabal eta Maria Luisa Alberdi dira Jubilatuen Gipuzkoako Txapelketako irabazleak Legazpiarren kontra Donostian jokaturako finala irabazita. Itzaropenan omenaldia egin zieten lortutako garaipenarengatik.

## Danborradako entsaioak

Danborradako hurrengo entsaioak, ekainaren 29an eta uztailaren 1, 6, 8, 13, 15 eta 20an izango dira, arratsaldeko 19:30etan frontoian.



**kutxa**  
 gizarte ekintza

**Juan Mari**  
*Arraindegia*

*Eguneroko  
 arraina  
 eta konjelatuak*

Merkatu Plaza  
 20590 Soraluze  
 Tfnoa 943 75 24 40  
 Partikularra 943 74 03 69





RKPILA antzerki taldeko kideetako batzuk, Sorraluzeko baserri baten egindako entsaio asteburu baten ostean. Ondoan, dagoneko banandua dagoen Stolisnaia talde mitikoaren abeslaria joan zen urteko RKZULOKO jaialdian.

## RKZULO jaialdia eta antzerkia

RKZULO herri mugimenduak antolatuta, uztailean bi emankizun berri eskeiniko dira gure herrian. Uztailearen 3an RKZULO musika jaialdiaz gozatzeko aukera izango dute Plaza Zaharrera hurre-ratuko diren guztiak. Aurtengoa izango da bigarren jaialdia eta ihazkoan txalaparta, bertsoak, poesia eta musika uzartu bazituzten ere, bigarren honetan musikak izango du protagonismo osoa.

Uztailearen 16an berriz, RKPILLA antzerki taldeak, gaueko 22:30etan, Sergi Belbel kataluniarraren "Hiltzea" antzezlanaz aurkeztuko du Gaztetxean. Esketx ezberdinez osatutako antzezlanada, heriotzaren eta gaurko gizartearen norabidearen inguruan hausnartzera gonbidatzen duena. Lau hilabete inguruan jardun dute parrokiak lagatako abadetxeko lokaletan antzezlanaz prestatzen eta gogoz daude jendearen aurrean antzezteko.

RKZULO ez da baina musikarekin eta antzerkiarekin amaitzen. Bertako

partaideen esanetan; "agerpen artistiko zabala izatea du helburu eta edozein herritarrek bere ideiak nahi duenean bertan plazaratzea". Urteko edozein sasoi da ona horretarako. Neguan, esaterako, poesia taldeak herriko farolak haikuz (poema japoniarrez) jantzi zituen. Maiatzaren 29an, berriz, herriko lagun talde batak Galipoteko Jaixa antolatu zuen lehen aldiz. Pailazok eta musikariek jardun zuten eguna alaitzen. Etorkizunean bide beretik jarraitzeko asmoa dutela adierazi digute antolatzaileek eta azpimarratu dute edozein herritarrek hartu dezakeela parte bertan.

*"Uztailearen 3an RKZULO musika jaialdia izango da Plaza Zaharrean eta 16an berriz RKPILLaren antzezlanaz Gaztetxean"*

### EGITARAUA

#### Arratsaldeko saioa

**18:30 etan**

- (Ene begiek)
- (Ehun aldiz agur)
- CACHAÇA EM ITAPOA
- AMALUR
- NATAKA STROKK


#### Gaueko saioa

**22:30etan**

- GRIFO AZPIXAN
- PANKRIAK
- OLAT
- ANTOINE AVEC POMMES DE TERRE
- FUNKIAK
- KEVIN BACON AND THE BLUES FUCKERS
- KALAÑA: LA ARAÑA
- SPONGIFORME

**RK zozketako zenbakia: 286  
Oier Txanbuari egokitu zaio**

ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea  
9 4 3 7 5 2 5 6 7  
20590 Sorraluze

## Mendata taberna



**Berezitasunak:**  
**Txipiroiak, Barazki Menestra, Gixauak...**  
**Asteburuan plater konbinatuak**  
**Enkarguak etxerako**  
**( bazkariak eta afariak )**  
Kalebarren, 5  
Tfnoa 943 75 13 87

## Erreazale eta Athleticzaleen arteko berdinketa



Azkenean 1 eta 1eko berdinketaz amaitu zen joan zen larunbatean Ezo-ziko futbol zelaian erreazale eta athleticzaleen artean jokatu zuten partidua. Eguraldia lagun, umorez eta joko onez betetako partidua jokatu zuten bi talde-tako jokalariek, tartean baliogabetutako gol bat eta bost txartel hori ere izan ziren, gorririk bat ere ez. Epaile lanetan Joxe Mari ibili zen!  
Bejondeizuela!

### Mendi irteera Pirineoetara

Urtero moduan, Soraluzeko Mendi Taldeak Pirineoetarako mendi irteera antolatu du uztaileko. Bi egunetako irteera izango da Respumoso ingurura, uztailearen 17 eta 18an egingo dena. Irteeraren prezioa 70 eurokoa izango da eta 60 eurokoa mendi taldeko bazkide izan ezker.

Izena emateko epea uztailearen 7an amaituko da eta horretarako Kirol Bazkunaren egoitzara deitu behar da, 943751029 telefonora.

Bestalde uztailean zehar ez da beste mendi irteerarik antolatuko. Hurrengo irailaren 19an izango da Arrasateko Besaidera egingo dena.

### Pelota txapelketako azken laurdenak

Asier eta Iñakiren Omenezko Pelota Txapelketa azken zortzirenetan da dagoeneko eta datorren uztailearen 10 eta 11n jokatuko dira azken laurdene-tako lau partiduak..

### Bi talde sailkatuta futbito txapelketan

Futbito Txapelketa aurrera doa eta dagoeneko Artifices eta Babajana talde-ak sailkatuta daude jokatutako hiru partiduak irabazita. Azken zortzirenak uztailearen 10ean jokatuko dira eta horrela hurrenez hurren jaietan finala joku arte.

### EMAITZAK

**Futbola**  
Erreazaliak 1 - Athleticzaliak 2

#### Esku pilota

Haritz Laskurain  
Eskuko minez dago.

Iñaki Jauregi  
Oreretan  
Eizagirre - Altuna 22  
Aranzeta - Jauregi 18

Añorgan  
Gonzalez - Jauregi 22  
Erroizena - Aranalde 12

Belauntzako jaietan  
Alzugarai - Oteiza 22  
Belloso - Jauregi 18

Atxotegi eta Varela  
Oñatiko Txapelketan  
22 - 04 irabazi zuten Lazkaoko bikotea-  
ren aurka.

(Oraindik partidu gehiago gelditzen zaizkie.)

Deba Arroko Txapelketan  
Bergararen aurka 22 - 12 irabazi zuten  
Atxotegik eta Aspe eskoriatzarrak.

### AJENDA

**Esku pilota,**  
Ekainaren 26an, 17:00etan  
Atxotegik eta Aspe Deba Arroko  
Txapelketako finala jokatuko dute Es-  
koriatzan Elgoibarko taldearen aurka.

**IKERLAKU**  
PODOLOGIA ZENTROA  
OINETAKO GAIJOTASUNAK  
AZTERKETA BIOMEKANIKOA  
KIROL PODOLOGIA  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK

**ARMENDIA**  
**JATETXEA**

Ezozl Auzoa, 11  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 10 02

**Sukaldaritza tradizionala**

**MENDIZABAL**

OKINDEGIA

Kalebarren, 10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
**SORALUZE**

**TXOKO**  
**KAFETEGIA**

*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*  
Kalebarren 22 behe, telf: 943751789

# Mari Carmen Elizondo

*Pil-pileanekuek ez deixela kontutan hartu hemen idatzitako ezer!*

Udia heldu da azkenian eta eguraldixak hasieran kontrakua adierazi bazeban be, eguzkixak majo berotu dittu baztarrak. Plaza Zaharreko kerizpe gozuan barriketan topatu dogu Mari Carmen eta, guk kontrakua itxaroten bagenduan be, inungo pega barik onartu dau gure proposamena. Umoria eta katxondeua soberan dittu emakume honek, etara kontuak: bost bat minututan bi txiste kontau doskuz!

**Izen-abizenak, edadia eta lanbidia.**

Mari Carmen Elizondo, 38 urte eta etxeoandre eta klinikako auxiliari moduan egitten dot lan.

**Zelakua da Mari Carmen Elizondo?**

"Montoikua". Hasieran serixua emoten dot, baina gero engainau egitten dot.

**Zaletasunik bai?**

Musikia entzutia, ezer ez egittia, ordenagailuan txateatzia... Plan relajaua.

**Gaurkua moduko egun baterako planik onena?**

Donostiara jua plaiara eta gero jaixa lagunekin; hori bai, senarra eta semia etxian lagata. Egun bat neretako bakarrik nahiko neuke.

**Udia...**

Hondartzia, berua eta eulixak.

**Hiru desio.**

Loterixia tokatzia, osasuna eta lanik ez faltatzia (loterixarik ez jaku eta tokauko).

**Datorren asteburuan Rkzulo...**

Ez dot ezer entzun, baina herrirako entretenigarria eta motibatzailea bada ondo irizten jata. Gaztieri aukera bat emotia ondo dago eta hola herrixan be igarriko da.

**Zer egingo zenduke milioi bat eurokin?**

Uuuu!!! Oporretan jua!!!!

**Aurtengo udarako planik badago?**

Oindio ez seguruena, lan egin biharko dot eta.

**Jaixak gainian dirala, ze musika talde ekarriko zenduke?**

Neregaittik Amaral.

**Ta aurreko urtietako jaixeri zer falta izan jakue?**



**Mari Carmen Elizondo**

Barrakak. Ez da ezer egoten eta danondako izan biharko lirake. Umien aitzakixakin gurasuok dibertitzen gara.

**Zer esango zontseke Pil-pileaneko irakurlieri?**

Pil-pileanekuek ez deixela kontutan

## Bertso Begiz

*Auxiliar ta etxeoandre  
ez du bat ofizioa  
ezertxo ere ez egitea  
zer nolako bizioa  
Konfidantzakin astintzen ditu  
behekoa eta goikoa  
zuk dadukazun umore fina  
behintzat ez da "montoikoa".*

*Neko*

*(Doinua: Aita Jainkoak egin  
banindu...)*

hartu hemen idatzitako ezer!  
**Amaitzeko, txisterik badakizu?**  
Zergaittik dira kokodriluak zapalak eta berdiak? Ba potoluak eta gorrixak izan ezkerro tomatiak izango lirakelako.

**JAVIER ALONSO ZELAIETA**

434 ZENB.KOL

**HORTZ  
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA




ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613



**VIDAL**  
**frutadenda**

Etxaburueta 2  
Tel. 943752055





# Ugaraxo

Ekaineko alea



## Zuloaga txiki


**1** go zikloko neska-mutilak maiatzaren 27 eta 28an Zuloaga Txikin (Tolosan) egon ginen.

Gelan "zomorroak" delako gaia landuta genuen. Horrekin lotuta, erleen bizitza ikastera joan ginen.

Tailer eta joko desberdinak egin genituen, beti erleei buruz. Oso interesgarria eta ikusgarria izan zen zuzenean ikustea erleak nola bizi diren. Garbi ikusi zuten maila bakoitzeko erleak eta bakoitzari dagokion lana. Erleetatik ateratako produktu desberdinak ere probatu eta ikusi genituen: mota desberdine-

tako eztiak, argizaria, propoleoa,...

Bertan bazkaldu, afaldu eta lo egin genuen. Lotara joan baino lehenago "diskoteka" martxan jarri genuen. Martxoso eta martxosa asko zeuden eta ez dakizute ze estilo dantza egiteko. **AUPA LEHENENGO ZIKLOA!!!!**



## Bukatu da ikasturtea lagunok!!

Hemen gaude 3.mailakook 2003/04 ikasturte honetako azken lerroak idazteko asmoz.

**B**atzuek ezetz esango dute baina azkenerako gu ere nekatuta aurkitzen gara eta hona hemen kurtso bukaeran eskolako ikasleek eginiko ekintzak:

\* 5 eta 6. Mailako ikasleak Lesakako aterpetxea bi egun igaro zituzten, bertan txala-

parta ikastaroa egin zutelarik.

\* 3. eta 4. Mailako ikasleak Gorliz-eko aterpetxean bi egun igaro genituen. Hantxe, arku jaurtiketa eta eskaladan gure trebetasunak erakutsi genizkien bizkaitarrei.

\* Haur Hezkuntzakoek berriz, Zarauzko hondartzan igaro zuten eguna.

\* Kurtso bukaeran Ezozin egin zen urteroko jaialdia. **EZ DAKIZUE ONGI ZER NOLAKO OGITARTEKOAK JAN GENITUEN!!**

Besterik gabe hurrengo ikasturterarte agurtzen gara

**3.mailako ikasleak**



**Gugemheinen izan ginanekua. Txakur galanta ataixan!**

**Ze gustora ibili gin**







Txalaparta jotzia erreza da, ondo jotia eta txakuna eta errenaren artian erritmua mantentzia ez hainbeste! Baina dibertigarria bai, hori bai. Ia herrixan txalaparta ikastaroren bat antolatzen dan...

Paretean gora ezin genduan argazkirik etara baina igo genduan eh! esperientzia latza izanda! herrixan be balego halakotxe bat...



Ia basuan bizitzeko moduan geundeke animaliak ehizatu-ko bagenittu arku eta gezixekin. Apunterixa exkax xamarra daukagu baina eta ez genduke elefanterik be joko.



## Amodiozko gutun lehiaketa

Aurtengo Amodio Gutunen Lehiaketan Gazte Mailan lehenengo saria lortu duen gutuna da ondorengo, Maite Quintanillarena. Gaztetxook, baduzue norengandik ikasi amodio gutunak idazten!



Maite Kintanilla

## Arrantzale maitea

Euskal Herria,  
2004ko otsailak 26a

Arrantzale maitea:

Eguna joan eta eguna etorri pentsamendu berbera egiten da nere buruaren jabe. Ezinezkoa zait bertatik ezabatzea. Zure berri jakin nuenetik ezin izan zaitut ahaztu. Zu ezagutzeko irrika bizia sartu zitzaidan, denek esaten baitzuten zoragarria zinela; eta bai, hala da, ezagutu bezain laster ziurtatu ahal izan dut.

Milaka amets goxo izan ditut zurekin, baina badago bat behin eta berriz errepikatzen dena. Hainbeste aipatzen duzun zure itsasontzi nimiño horretan gindoazen, elkar besarkaturik, gu bion mundu eder horretan murgildurik, bion senak bat eginik listuaren bitartez. Dena zen zoragarria, politegia agian. Baina hala gaudela desagertu egiten zara, ni bakarrik utzita, ozeano erdian egon ohi den bakardadean murgildurik.

Izerdi patsetan esnatzen naiz, gorputz osoa dardarka daukadala eta dena ames bat

izan zela konturatzean gogor besarkatzen dut zu babesten zaituen azala. Egunen batean, gauren batean agian, zuk ni beso artean babestuko nauzun itxaropenez.

Itxaropena, denok ezagutu ohi dugun hitza eta guztiok eduki beharko genukeen sentimendua, baita zeuk ere, kasu askotan bizitzen jarraitzeko arrazoi bakarra izan ohi delako.

Orain ulertzen dut zer dela eta zaren arrantzale bikaina, argi eta garbi daukat. Arrainak arrantzatu ohi diren legez arrantzatzen dituzu zuk bihotzak. Amua jaurtikitzen duzu goxo - goxo eta berehala gelditzen da harrapatua bihotz errugaberen bat. Eta behin amuak bihotza zeharkatzen badu ez dago atzera egiterik, zauria bertan gelditzen da eta ia ezinezkoa da orbain hori estaltzea.

Bizitza emango nuke zure ezpainen zaporea dastatzeagatik, arima hilko nuke, behin bakarrik bada ere, zure eskuen fereka nire gorputz biluzian sentitzeagatik. Baina errealitate itzuli beharra daukat. Bizitza luzea da eta ez dut

orain etsiko, beraz zin egiten dut, momentu honetantxe ene masailetan behera erortzen diren malko gazi hauek agortzen ari

zaizkidan legez, nire bihotzaren odol jarioa etengo dudala.

Ez naiz gehiago luzatuko, liburuaren azken pasartean diotzun bezala "bizitza zaila da berez, ez dezagun zailago egin".



Zu sortu zintuen liburua hartu eta orriz - orri erreko dut, su gorrian guztiz kiskaldu arte. Honela bakarrik ziurtatu baitezaket ez dituzula bihotz gehiago arrantzatuko eta orbainduak utziko. Ondoren eskutitz hau hartu eta itsasora jaurtiko dut, ozeanoaren olatuek ezer ezean bihur dezaten.

Norbaitek zu sortu zintuen, orri batzuetan bizia emanez, baina nik bertatik hilko zaitut, nire bihotzaren pusketatxo batean bizirik gordez.

Muxu amaigabe bat

DUNIXI, irakurle suttsua

# Euskal Jaiak 2004



## Euskal Jaiak 2004

Haurren Euskal Jaiak 150 dantzari baino gehiago izan genituen herrian Urrats Dantza Taldekoekin batera, Urbeltz eta Iñurrietaren hitzaldiak etorri ziren gero, 300 umetxo eta gurasok gozatu zuten Takolo Pirritx eta Porrotxen saioaz eta Jonu kantautoreak bere kanturik berezienak jo zituen Gaztetxeko tablatuan, eta amaitzeko, apostu zirrargarri bat izan zen ibaian sagardoz ondo bustitako dantza egun baten barruan. Jai eder eta arrakastatsuak izan dira zuei eskerrak!

Eskerrik benetako eta bihotzekoenak aurtengo Euskal Jaiak antolakuntzan lagundu diguzuen herritar, merkatari eta erakunde guztioi.  
Eskerrikasko!

Soraluzeko Euskal Jaiak

# OITXURRI

tel. 605768151  
GABOLATZ  
28 BEHEA



**ARDORIK ONENAK  
OITXURRIRENAK!**

urteko ardoak - 2 € tik aurrera  
Balagu  
BASOCO  
mitarte  
f. fdez gomez



kriantzak - 4,50 € tik aurrera  
h. de don tomas  
solaguen  
valserrano  
pierola

erreserbak - 9,50 € tik aurrera  
valserrano  
solaguen  
pierola

# EZOZIA JATETXEA

Zatoz eta gozatu  
gure jakiak!



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk  
ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua  
eta aukera zabala kartara.

**Ezozia Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE**